



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



NAHIKO! 3-4

ZAINKETA

1

UNITATE
DIDAKTIKOA

FAMILIAREN KOADERNOA 3

Familia agurgarria:

Ongietorriak zarete Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailarako **EMAKUNDE**ren **NAHIKO Proiektura**. Neska-mutilen eta emakume eta gizonen arteko berdintasunerako programa duzue hau. Eskubide eta aukeren berdintasuna, tratu eta arduren berdintasuna... Denerako berdintasuna, bizitzan eta munduan, bizitzako arlo guztietan eta munduko arlo guztietan.

NAHIKoren **helburua**, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailan zein bosgarren eta seigarren mailan, emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren prebentzioa eta sentsibilizazioa da. Egun, mundu osoko **emakumeek pairatzen dituzten tratu txarrak soilik berdintasunak prebenitu eta sahiestu ditzake**. Soilik berdintasunez eraiki dezakegu mundu hobea, non emakumeak zein gizonak, neskak zein mutilak, justizia eta tratu onetan bizi gaitezkeen.

Zuen seme-alabak hurrengo bi ikasturtetan hezkidetza proiektu honetan parte hartuko du. **Programa sei unitate didaktikoez osatuta dago**, hiru hirugarren mailan eta beste hiru laugarrenean. Unitate bakoitzak material propioak ditu: gutxi gora-behera asteko maiztasunarekin zentroko irakasleak erabiltzeko dinamika eta jolasak, gelan landu eta osatuko diren ikaslearen bi koaderno, eta azkenik, unitate bakoitzak hau bezalako **familiaren koaderno** bat du, etxean lasaitasunez hausnartzeko.

Koaderno familiar hau ez da eskolako lana, baizik eta **gonbidapen bat, familiaren elkarrizketarako eta topaketarako proposamena**. Koadernoak zuen seme-alabak unitate didaktikoan zehar eskolan landu, bizi eta barneratutako kontuak arlo familiarrera eramaten ditu. **Hiruhilekoaren bukaeran** eskolan egin eta ikasitakoa etxera eramango dute zuen seme-alabek, zalantza eta aurrerapen pertsonalak zuekin alderatu ahal izateko.

IZENA

Koadernoak ez du zuen aldetik ezagupen edota prestakuntza berezirik eskatzen. Soilik **elkartze eta elkarrizketarako denbora pixka bat eskatzen du, zuen bizi-esperientziaren aldetik elkarbizitzaz hitzegiteko**: harreman pertsonalak, mundua eta honen funtzionamendua, pertsonak era beren beharrak, aniztasuna eta berdintasuna, zainketa eta lana, komunikabideak eta gizartea, giza-eskubideak eta elkarbizitza.

Koadernoak ez da lan akademikoa balitz bezala **klasean zuzendu edota aurkeztuko**. Irakaslegoaren lana koadernoak etxera eraman dela eta honen erabilera eta erabilgarritasunaren maila kontrolatzean datza. Intimitate familiarra beti errespetatuko du, edukiaren erabilera eta ezagupena familia bakoitzaren irizpide eta diskreziopian egongo delarik.

Urte batzuetako esperientziak hauxe erakutsi digu: koadernoak denboraz eta lasaitasunez erabili denean eta izan nahi lukeen elkarrizketa familiarren abiapuntu eta aitzaki izan denean, beren seme-alaben heldutasun maila berriak aurkituz, familiak atsegindu eta harritu egin direla eta kohesio familiarra handitu egin dela.

Saiatzeak merezi du.
Goza dezazuela!

1 NAHIKO 3-4 LOGOA AZALDU FAMILIARI



Zer adierazten du kolore grisak?	
Eta kolore/mundu berdeak?	
Zertaz osatzen dira koloreak?	
Eta nola alda daitezke?	

2 NOREN ARDURA DA ZAINKETA?


Behelaldean "Zainketa!" jolasaren hamabost familiak daude. Komentatu etxekoekin eta ados jarri: zuen inguruan, nork egiten du zainketa hori gehienetan, emakumeek ala gizonak? Margotu bere laukitxoak. Berdin egiten badute, margotu biak. Zenbat egiten dituzte emakumeek eta zenbat gizonak? Zergatik?

umeen zainketa  1.2	emakumeak gizonak	sendatzeko zainketa  2.1	emakumeak gizonak	pertsonen zainketa  3.4	emakumeak gizonak	elikadura, osasuna  4.3	emakumeak gizonak
aisialdia, kultura  9.4	emakumeak gizonak	ongizatea  10.3	emakumeak gizonak	segurtasuna  11.3	emakumeak gizonak	erantzukizun-kidetza  12.2	emakumeak gizonak
osasuna  5.1	emakumeak gizonak	babesa, etxea  6.1	emakumeak gizonak	heziketa  7.4	emakumeak gizonak	larrialdiak  8.1	emakumeak gizonak
parekotasuna  13.1	emakumeak gizonak	elkarren ardura eta konpainia  14.1	emakumeak gizonak	duintasuna, berdintasuna  15.2	emakumeak gizonak	ZAINKETA!  EMAKUNDE ELKARREAN BERRIKUNTZAN BERRIKUNTZAN BERRIKUNTZAN	emakumeak gizonak

orokorrean

3 EGIA ALA GEZURRA?

“Sena ala heziketa?” domino jolaseko irudi eta esaldi hauek komentatu itzazue. Idatzi ezazue marrazki bakoitzari dagokion beste esaldi bana.

Emakume batzuk gizonek ezin dutela hau ikasi uste dute.		
Gizon askok ezin dutela ikasi esaten dute.		
Emakumeek ez dute hau egiteko gene edo sen berezi bat.		
Gizonezkoak ez dira jaino hau ikasita.		

4 ETA GURE ETXEAN, NOR ARDURATZEN DA?

Idatz ezazue eskubiko laukian zainketa horretaz arduratzen den etxeko pertsonaren izena.

Umeak		Larrialdiak	
Gaixoak		Aisialdia	
Pertsonak		Ongizatea	
Elikadura		Ongizatea	
Elikadura		Erantzukizunkidetzaz	
Heziketa		Ardura eta konpainia	